

# Albaramendua!

**Jon M. Landa**

EHUko Giza Eskubideen  
eta Botere  
Publikoen Unesco  
Katedraren zuzendaria

**L**egelarien artean, iraganean, urrezko araua izaten zen epaileen esku eta erabaki gabe (*sub iudice*) zeuden kasuetan ez hitz egitearena, justiziaren erabakietan eragina gerta ez zedin botere judizialaren inpartzialtasuna eta independentzia gordetze aldera. Egungo gizartean, ordea, prozesu penalek duten zentraltasunak, eta irabazi duten protagonismoak, ezinezko bihurtu dute kasu penalen inguruko isiltasuna. Aitzitik, esparru publikoan, oro har, zein sare sozialetan, bereziki, kasuon eztabaida bai ala bai lehenengo minututik pizten da, iritzi zaparrada baituzten. Horregatik, iritzi-uholdepean, esparru teknikoak azalpenen bat emateak, apika, lagun lezake norberaren ikuspegia hobeto oinarritzen.

Dena dela, Auzitegi Gorenean prozesu subiranistaren aurka eramaten ari den epaiketaz zerbait berria eta argigarria esatea ez da, ez, lan makala! Horregatik, matxinada-delitua (asaldatze-delitua ere deitua) eta horrek dakarren indarkeriaren arazoa albo batera utziko dut, eta bere alternatiba den albaramenduari edo sedizio-delituari ekingo diot. Eta hori, ez bakarrik azken honetan fokoa hainbeste jarri ez delako, baizik eta, nire uste apalean, hori izango baita –horra hor pronostiko bat egiteko ausardia!– ziuruenik azkenik ezarriko den kondena nagusia. Gustatuko litzaidake pentsatzea akusatua aska aterako direla, baina, zoritxarrez, kondenatuko dituztela ematen du, eta gauzak nola doazen ikusirik, nik esango nuke «erdiok bide» honetatik: alegia, albaramenduaren delitua gertatuzat jotzetik.

Albaramenduagatik kondenak akusatua nagusientzat hamar urteko presoaldiaren inguruko zigorra ekarriko luke, alegia, ikaragarri gogorra den espetxealdi luzea (gizahilketaren bezainbestekoa!). Horrek, bai instruzioa, bai kanpora begira egin ziren ahaleginak (euroordenak batez ere), bai behin-behineko presoaldia «zurituko» lituzke. Baina, aldi berean, matxinadan ekarriko lukeen erabateko gehiegikeria arintzeko balioko luke.

Hitz gutxitan, albaramenduak tarteko bidea osatuko luke, absoluzio eta muturreko kondenaren artean.

Baina zer da albaramendua? Eta egia al da albaramenduak ez duela indarkeriarik galdetzen? Goazen pausoz pauso. Espainiako Zigor Kodearen 544 artikulua dio: «Albaramendupeko akusatua dira, asaldatze-delitutik kanpo daudelarik, agerian eta modu nahasian altxatzen direnak, indarrez edo legeko bideetatik kanpo, legean aplikazioa eragotzeko [...]». Delitua «altxatzea» eskatzen du, eta «modu nahasian» hain zuzen ere, beti indarkeriaren neurriren bat exijitu duena. Doktrinak albaramenduari matxinada edo asaldatze «txikia» deitu ohi dio, eta horren harira 544 artikulua berak argitzen du delitu hau bakarrik jarriko dela martxan matxinada ez dagoen kasuetan. Ez da, hor-taz, egia, matxinada eta albaramenduaren arteko desberdintasuna indarkeriaren existentzian dagoenik. Doktrinaren zati garrantzitsu baten iritziak, biak ezberdintzeko gakoak ez

dago horretan, altxatzeko helburuan baizik. Modu argian esateagatik: altxatzea baldin bada, indarkeriaz, Estatuaren –muinaren aurka– jotzeko (Estatu kolpea, Tejerok emandakoa kasu, Gortean tiroka sartuz) orduan matxinada dugu; altxatzea, ordea, esatu boterearen beste funtzioak eragotzeko bada, orduan, albaramendua. Matxinadak demokrazia guztiz suntsitzea du helburu; albaramenduak demokraziaren «funtzionamendua».

Matxinada delitua existitzea uler liteke zigor kode demokratikoetan, beti ere ikaragarriko indarkeriaren testuinguruan aurrera eraman nahi den kasuetarako. Esku artean dugun kasua argi eta garbi ez da hori, behin eta berriro komunikabideetatik kontrako esaten bada ere. Albaramenduak, aitzitik, ez du lekurik ordenamendu demokratikotik, are gutxiago halako zigor handiekin mehatxatuta egonez gero. Badu sedizioak halako kutsu autoritario eta antidemokratikoa, disidentzia politikoa zigortzeko mantenduko balitz bezala. Horregatik, gure inguruko ordenamendu gehienetan desagertuz joan zen ilustrazio garaiaz geroztik kodifikazioa bultzatzearekin batera. Sedizioaren ordez, halako jarduerak gehienez desobediencia delituetan txertatuz joan dira inguruko ordenamendu juridiko-penalean. Matxinadaren «alternatiba zibilizatua» ez da albaramendua, desobediencia delitua baizik. Inoiz ireki behar ez zen prozedura penal hau, irekiz gero, desobeditze-esparruan kokatu beharko zatekeen hasiera batetik, gauzak senetik atera gabe.

Izan ere, prozesu subiranistaren kasuan desobeditzeaz ari dira-eta. Desobediencia zibila; desobediencia erakundeetatik hauspotua; desobediencia eragingarria: baina baketsua. Eta horregatik hasiera batean ez zen kode penalaz hitz egiten. Eta horregatik kode penala erabili nahi izan zenean, indarkeria «eraiki» egin zen. Zeren eta desobediencia ere delituzkoa izateko indarkeriaz aurrera eraman beharra baitago.

Desobeditzea eta indarkeria: horra hor gakoak. Ados egon ala ez, desobeditzea baketsua bada, ezin da demokrazia batean kartzelarekin zigortu. Ekar lezake muturreko kasuetan esku-hartze administratiboa, inkuso kargugabetzea, desobeditzea aginte edo funtzio publikotik aurrera eramango balitz. Baina espetxea ez... ez behintzat bidean demokrazia zati garrantzitsu bat galduta nahi ez badugu.

**Matxinadaren «alternatiba zibilizatua» ez da albaramendua, desobediencia delitua baizik. Inoiz ireki behar ez zen prozedura penal hau, irekiz gero, desobeditze-esparruan kokatu beharko zatekeen hasiera batetik, gauzak senetik atera gabe**

**E**gunotan ezin da lasai ibili, ia edozein kale kantoitatik gizon batek gabardina disimuluz ireki eta hauteskunde inkesta bat eskaini gabe. Nork bere hornitzailea ez duenak fidatu behar izaten du eskaintzen diotenaz, jatorria ezagutu ez arren. Susma dezake puruegia ez dela izanen,



**JIRA**  
Angel Erro

bere eskuetara aski auzunduta eta zaituta iritsiko dela, baina zer egin, ez badu ahora (edo usnara) zer eraman hoberik? Hurbilduko zaio banatzaileari, berari iruzurra sakatzeko zaila delako plantarekin. Ez

dela atzo jaiotakoa. Halere, ahotsak dar-dar egingen dio inkestak noizko diren galdetzean. Hurrengoetarako, jakina. Duintasuna berreskuratzen saiatuko da gure gizontxoak, besteak gaizki ulertu delakoa eginez, inkestak zein esparru, zein barrutiarako diren zehaztuz. Gertu-gertukoa. Ongi da.

Gutxi irau du inkestaren goraldiak. Astinaldi labor bat burmuin betean. Damua berehala etorri da. Sasiko euforia ala beheraldi malenkonikoa, ohituta beharko luke ondorio-etera, errealtateetik atera, bai, baina deus gutxirako balio dituen azken buruan. Inkestak zabaltzen dituztenek herritarrak (gazterria, zaharria) lokartzea beste asmorik ez dutela entzun du. Hala izanen da, nork daki, baina berak gustura hartuko luke beste inkesta bat.

## Inpunitatea

**F**axismoa bultzatu eta haren lerroetara lerratu; konplexurik gabe. Goi karguak harrapatzeko ondokoak zapaldu, eta karguak bete. Erabaki odoltsuak hartu. Azken batean, halako lekuan dagoenak badaki odola ez dela berea izango eta besteak ez diola alkanдора ziprirtinduko. Polizia ondo entrenatu jendea



**BIRA**  
Onintza Enbeita

errukirik gabe hil dezan, eta bulegoko auklaren magaletik hura gobernatu. Tiro egiteko agintu, eta hildakoen gorpuen gainetik pasatu. Greban zeuden langileak baino ez ziren, asanbladan zeuden. Berdin

dio: zurekin ez dagoen guztia zure menpe dago. Hildakoak zurlora: bost komunista gutxiago. Faxisten buruzagia hil eta gauzak aldatzeko beharra dagoela esan, jendea aldatu egingo dela sinetsarazi. Aldaketaren lider jarri eta ezer ez aldatzeko lan egin. Izena aldatu eta izanari eutsi. Hildakoei buruz hitz egitera ausartzen direnei barre egin. Haien ondorengoei errekonozimendua ukatu, ezere biktima ez balira legez tratatu. Eta bizi. Hil arte bizi; inoiz euli bat hil ez bazenu bezala. Badaukazulako komunikabide talde handi bat demokrazia handia zarela azpimarratuko duena matrailik gorritu gabe. Horixe da inpunitatea. Ez dezagun ahaztu zergatik ahatzarazi nahi izan diguten martxoaren 3 batez Gas-teizen gertatua.